



ELKAR TALDEAREN jarduera-ardatz nagusiak honako hauek dira: Argitalpen Dibisioa, nagusiki euskarazko liburuak argitaratzera bideratua; Txikizkako Salmenta, Elkar liburu-denden katearen bitartez (gaur egun 18 denda ditu) eta online dendaren bidez; eta Banaketa eta Logistika Editoriala, estatuko lurralde osora iristen dena ACL (Almacén Central de Librería) eta DISPE (Distribuciones Pedagógicas) filialen bitartez.

2022an enpresak 50 urteko ibilbidea bete du, eta, aldi berean, bere plataforma logistikoa berria inauguratu du Adunan. Plataforma horretatik, banaketa- eta logistika-zerbitzuak ematen dizkio, esklusiban, Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpen-sektore osoari eta estatu-mailako argitalpen-taldeei, hala nola, RBA, Michelin, Oxford University Press eta Fondo de Cultura Económica taldeei.

Zer behar zuen?

- Elkarren lehenengo beharra 1997an sortu zen, Internetek eskaintzen zituen lehen zerbitzuak erabiltzen hasi nahi izan zuenean, hala nola web-orriak eta posta elektronikoa, bere biltegi eta dendekin azkar komunikatzeko eta horiek eskaerak telematikoki egin ahal izateko.
- Urteen poderioz, jakina, konektibitate-premia hori handituz joan da, eta teknologiak aurrera egin ahala, telekomunikazioak hobetzeko proiektu berriei ekin zaie, **zentro guztien arteko interkonektio azkarra eta kalitatezkoa lortzeko**, sare pribatu korporatiboko soluzio global baten bidez.
- Betiere kontuan harturik konfiguratuko zen sare pribatuak **malgua eta eskalagarria izan behar zuela**, taldearen hedapenera egokitu ahal izateko eta zentro berriak integratzen joateko, erraz eta denbora laburrean konektatuta.
- Gainera, beren **sare pribatuko konexioak fidagarriak eta seguruak izatea** behar zuten, merkataritzaren eguneroko lanak arazorik eta atzerapenik izan ez zezan, ez dendetako bezeroekin, ez online salmentarekin. Horregatik, linean edozein akats izanez gero konexioa beti erabilgarri egotea bermatuko zuen soluzio bat behar zen, baita sarea babestuko zuten zibersegurtasun-neurriak ere.

Zergatik aukeratu zuen sarenak?

- Lehenik, duela 25 urte oso hornitzaile gutxi zutelako Interneten zerbitzu ona emateko **behar zen azpiegitura eta gaitasun teknologikoa**. Sarenak estatuko lehenengoetako bat izan zen, eta ordurako ezaguna zen **enpresei kalitate handiko soluzioak** eskaintzeagatik. Prestakuntza tekniko hori eta **esperientzia** hori zen Elkarrek Interneten bermekin sartzeko urratsa egiteko behar zuena.
- Baina, gainera, Elkarrek aholkularitza profesionala emango zion hornitzaile bat behar zuen, eta erabiltzeko prest egongo zen Sarenetako teknikarien ardurapeko proiektu bat. **Zerbitzu irisgarria, hurbilekoa eta pertsonalizatua** behar zuen, eta **txikizkako merkataritzaren beharrei eta kasuistakari erantzun zieten neurrirako soluzioak**. Zerbitzuaren hurbiltasuna eta proiektu bakoitzaren pertsonalizazio hori izan da Elkarrek hainbeste urteren ondoren Sarenen konfiantza izaten jarraitzeko arrazoia.

Ezarritako soluzioa

- Kokaleku bakoitzean konexiorik onena eskaintzen duen operadore **anitzeko eta teknologia anitzeko Sare Pribatu Birtual** bat konfiguratu da. Hori **bereziki interesgarria da txikizkako merkataritzaren kasuan**. Izan ere, dendak, batzuetan, azpiegitura modernoetara nekez irits daitezkeen lekuetan kokatzen dira, esate baterako zenbait hiritako alde zaharrea, eta kasu horietan oso korapilatsua izaten da konektibitate ona izatea.
- Gainera, **sarearen erabilgarritasuna ahalik eta gehien bermatzeko, 4G babes-lineak** konfiguratu dira, akats-puntu komunik gabe, eta horien gainean trafikoa automatikoki konmutatzen da, linea nagusia eroriz gero konektibitateari eusteko.
- Bestalde, **egoitza nagusian instalatutako azken belaunaldiko suebaki baten bidez segurtatu dira komunikazioak**. Komunikazio guztiak eta kanpoko sarbideak kontrolatzeko, eta sare pribatuaren kontrako eraso posibleak blokeatzeko soluzioa, arrazoizko prezioan gainera.
- Sare pribatuari **monitorizazio-sistema eskusibo bat** ere gehitu zaio, konektatutako denda eta biltegi guztien trafikoa eta lineen egoera analizatzeko. Edozein gorabehera identifikatzeko eta arazoa berehala konpontzeko aukera ematen duen tresna erabilgarria.



Zer onura lortu ditu?

- **Konexio fidagarria, segurua eta azkartasunik handienekoa** lortu da salmenta-puntu guztietan, eta horrek **hobetu egin du denden eta biltegi nagusiaren arteko komunikazioa**, arinago egiteko eskaerak, barne-informazioaren trukea, stocken kontsulta, erantzunen jakinarazpena... Konektibitate hobe horrek, instalatutako web-zerbitzariarekin batera, **online dendaren funtzionamendu eta erabilgarritasun egokia** ahalbidetzen du, are eskari handiko uneetan ere (Gabonak, ikasturte-hasierak, unean uneko sustapenak, merkaturatzeak...).
- Babes-soluzioek **une oro konektibitateari eustea** bermatzen dute, salmentetan eragina izan dezaketen etenak edo zerbitzu-galerak saihesten dituzte-eta. Horregatik, etengabeko erabilgarritasuna izatea oso garrantzitsua da denda guztientzat eta, bereziki, online merkataritzarentzat.
- **Hobetu egin dira**, halaber, **sarearen kontrola eta kudeaketa**, monitorizazio-tresnaren bidez, **eta komunikazioen segurtasuna**, egoitza nagusian instalatutako suebakiari esker.
- Horri guztiari esker, denda-sareak **zerbitzu hobea** eman diezaike **bezeroei**, eta hobetu egin ditzake haien erosketa-esperientziak.

Bezeroak dio...

“ Elkarren hazten eta proiektu berriei aurre egiten joan garen heinean, beti sentitu dugu Sarenetek ongi aholkatu eta laguntzen digula. Izan ere, oso teknikari kualifikatuak dituzte, eta beti eman digute soluziorik onena denda berri bakoitza inauguratu dugunean, baita duela gutxi ere, Adunako gure zentro logistiko berria abian jarri dugunean. ”

“ Edozein saltokirentzat, gaur egun ezinbestekoa da Internetarako konexio ona izatea, eta konexio hori segurua izatea. Eta horixe da Sarenetek ematen diguna, bere esperientzia luzean eta daukan puntako teknologian oinarrituta. Baina kalitateaz gain, oso laguntza eskuragarria eta hurbilekoa eskaintzea baloratzen dugu, hori, inongo zalantzarik gabe, laguntza handia baita. ”



Xabier Erauskin.
Elkarreko Sare arduraduna